



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 4a

113. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasun Departamentuak Erizaintzako lan-eskaintza publikoaren eta lekualdatze-lehiaketaren aurretik barne-egokitzapenerako deialdi bat ez egiteko arrazoiei buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzearen bideragarritasunari buruzko txosten bat egitea Analistas Financieros Internacionales merkataritza-sozietateari esleitzeari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroaren esportazioei eta esportazio horiek foru erkidegoaren ekonomian eta irudian duten ondoreari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako lizitazio publikoari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, honako erabakiaren aurrekontu-betetzeari buruzkoa: Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoek tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izan eta finantzaketa publikoa duenean. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Basoko BHI, Barañain BHI eta Corellako Arte eta Diseinu Eskolako garbiketa-zerbitzuak pribatizatzeke arrazoiei eta garbiketa-zerbitzuak berriz publiko egite aldera abiarazitako urratsei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eskumenen barruan beka-sistema aldatzeko plan bat egoteari, unibertsitate-ikasketetarako bekei eta NUPeko tasak direla-eta Gobernuak darabilen politikari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (7. or.).
- Galdera, herritarrei etxebizitzaren arloan laguntzeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamenean baremazio-merezimendu gisa alokairua ez ordaintzea jasotzeari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, ikastetxea hautatze aldera eta Tuteran Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako lerro bat ezartze aldera Hezkuntza Departamentuak daukan irizpideari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (8. or.).

- Galdera, Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2014tik 2020ra bitarteko Programaren esparruan LEADER-toki garapeneko estrategia parte-hartzailea ezartzeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa berriz ere publikoa izateari dagokionez Nafarroako Gobernuak aurreikusitako egutegiari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (10. or.).
- Galdera, NUP IDISNAn sartzeari eta Medikuntza Gradua ezartzeko aukerari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Tafalla aldean gertatutako baso-suteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Indiako sektore publikoko enpresen ordezkaritza batek Nafarroara egindako bisitaren balantzeari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Jauregiko obrei buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Departamentuak Erizaintzako lan-eskaintza publikoaren eta lekualdatze-lehiaketaren aurretik barne-egokitzapenerako deialdi bat ez egiteko arrazoiei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak Erizaintzako lan-eskaintza publikoaren eta lekualdatze-lehiaketaren aurretik barne-egokitzapenerako deialdi bat ez egiteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikita dagoen foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Osasun Departamentuak zergatik ez du egin Erizaintzako lan-eskaintza publiko iragarriaren eta lekualdatze-lehiaketaren aurretik barne-egokitzapenerako deialdirik?

Iruñean, 2015eko irailaren 27an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzearen bideragarritasunari buruzko txosten bat egitea Analistas Financieros Internacionales merkataritza-sozietateari esleitzeari buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzearen bideragarritasunari buruzko txosten bat egitea

Analistas Financieros Internacionales merkataritza-sozietateari esleitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan 2016ko urriaren 6ko Osoko Bilkuran.

Nafarroan banku publiko bat sortzearen bideragarritasunari buruzko txosten bat egitea duela gutxi AFI-Analistas Financieros Internacionales merkataritza-sozietateari esleitu izanari dagokionez,

Nafarroako Gobernuaren ustez, kontratuaren esleipen-hartzaile den enpresaren kasuan interes-gatazkarik egon al daiteke txosten hori egiteko, enpresa horretan zenbait banku-entitate pribatuk zeharkako partaidetza edukitzeagatik?

Nafarroako Gobernuak gogoan al darabil kontratua ez sinatzeko aukera eta, balizko interes-gatazka hori dela-eta jarduketa guztien deuseztasuna deklaratzekoa?

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari erantzukizunik eskatuko al dio kontratua esleitzeko prozesua dela-eta?

Iruñean, 2016ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroaren esportazioei eta esportazio horiek foru erkidegoaren ekonomian eta irudian duten ondoreari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren esportazioei eta esportazio horiek foru erkidegoaren ekonomian eta irudian duten ondoreari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroaren esportazioak ehuneko 7,3 jaitسي dira 2016ko lehen zazpi hilabeteetan, aurreko urteko epe beraren aldean, eta guztira 4.885 milioi euroko balioa izan dute, Nafarroako Estatistikaren Institutuaren datuen arabera. Halaber, esportazioak ehuneko 27,8 jaitسي dira urtetik urterako alde-raketa eginez gero.

Galderaren testua

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du esportazio-datu horretaz eta Nafarroako Foru Komunitatearen ekonomian eta irudian duen ondoreari buruz?

Iruñean, 2016ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Nafarroako lizitazio publikoari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako lizitazio publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Kazetaritza-iturrien bidez jakin dugu zein txikia izan den Nafarroan 2016an izandako lizitazio publikoa. Egoera hori ondorio logikoa da, neurri

batean, Garapen Ekonomikorako Departamentuak aurrekontuetan aurreikusi ez izanarena inbertsiorik egitea herri-lanen sektorean.

Arlo horretako egungo egoera bere arduradun nagusiaren ahotik egiaztatu ahal izateko, honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, goian azaldutako gaiaren honako alderdiei buruzkoa:

- Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiko Obra Zerbitzuak zer obra lizitatu ditu legegintzaldi honetan gaur arte? Zein izan da horien zenbatekoa?

- Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiko Proiektuen Zerbitzuak zer proiektu lizitatu ditu legegintzaldi honetan zehar? Zein izan da horien zenbatekoa?

- Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiko Kontserbazio Zerbitzuak zer obra kontratatu ditu legegintzaldi honetan gaur arte? Zein izan da horien zenbatekoa?

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, honako erabakiaren aurrekontu-betetzeari buruzkoa: Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoei tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izan eta finantzaketa publikoa duenean.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, honako erabakiaren aurrekontu-betetzeari buruzkoa: Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoei tratamendu medikoa atxikitzea,

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izan eta finantzaketa publikoa duenean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen 2015eko azaroaren 19an –2015eko azaroaren 25eko 35. Nafarroako Parla-

mentuko Aldizkari Ofizialaren arabera–, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua– premiatu baitzen erraztu zezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten gaixoek tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean. Zertan da erabaki horren aurrekontu-betetzea?

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Basoko BHI, Barañain BHI eta Corellako Arte eta Diseinu Eskolako garbiketa-zerbitzuak pribatizatzeko arrazoiei eta garbiketa-zerbitzuak berriz publiko egite aldera abiarazitako urratsei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Basoko BHI, Barañain BHI eta Corellako Arte eta Diseinu Eskolako garbiketa-zerbitzuak pribatizatzeko arrazoiei eta garbiketa-zerbitzuak berriz publiko egite aldera abiarazitako urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dakion.

Zer arrazoi egon da garbiketa-zerbitzuak pribatizatzeko Basoko BHIan, Barañain BHIan eta Corellako Arte eta Diseinu Eskolan? Programa-akordioan jasotzen da “azken urteetan foru-administrazioaren barruan egindako zerbitzu-privatizazioak aztertzea”. Horren harira, zer urrats abiarazi dira garbiketa-zerbitzuak berriz ere publiko egiteko?

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eskumenen barruan beka-sistema aldatzeko plan bat egoteari, unibertsitate-ikasketetarako bekei eta NUPeko tasak direla-eta Gobernuak darabilen politikari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren eskumenen barruan beka-sistema aldatzeko plan bat egoteari, unibertsitate-ikasketetarako bekei eta NUPeko tasak direla-eta Gobernuak darabilen politikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Hezkuntza Departamentuak ba al du beka-sistema aldatzeko planik, Nafarroako Gobernuak arlo horretan dituen eskumenen barruan? Eta unibertsitate-ikasketetarako bekei dagokienez, ematen al da zentro pribatuetako unibertsitate-ikasketetarako bekarik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere eskaintzen dituen gradu edo bestelako titulazioetan?

Zein da gaur egun Gobernuak NUPeko tasei dagokienez darabilen politika?

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, herritarrei etxebizitzaren arloan laguntzeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamenean baremazio-merezimendu gisa alokairua ez ordaintzea jasotzeko buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, herritarrei etxebizitzaren arloan laguntzeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamenean baremazio-merezimendu gisa alokairua ez ordaintzea jasotzeko buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Herritarrei etxebizitzaren arloan laguntzeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamenean jasotzen da alokairu babestuko etxebizitza eskuratzeko baremazioari begira saritzekoa izan daitekeela errenta ez ordaintzeagatik etxegabetua izatea.

Planteamendu bitxi eta berritzaile hori dela-eta eskatzen dut

gai horri buruzko honako galdera hau onartzea eta izapidetzea, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Etxebizitzaren arloko ardura duen kontseilariaren ustez, alokairuko erroldan etxebizitzak esleitzean saritu egin behar al da alokairua ez ordaintzea?

- Alokairuko etxebizitzaren eskaria handia denez, eta eskaintza, aldiz, txikia, aholkatuko al lioke etxebizitzaren arloko ardura duen kontseilariak errolda horretako hurrenkeran gora egin nahi duenari, sistema librean alokairua ordaintzeari utz diezaion, puntuak irabazteko?

- Etxebizitzaren arloko ardura duen kontseilariak zer uste du gertatuko dela jabetza publi-

koko alokairu babestuko sistemako maizterrek alokairua ordaintzeari uzten diotenean, baldin eta foru legediak berak hori merezimendu bat dela esaten badu? Sozietate publikoak horiek etxegabetuko al ditu? Puntu gehiago emanen al zaie toki hobeko batean edo altuera hobeko batean dagoen etxebizitza batera aldatzeko? Tratu berezi horrek zer eragin izanen du beren alokairua ordaindu egiten duten gainerako bizilagunen artean?

- Alokairua ez ordaintzeagatik etxegabetzea lehenagotik premiatu duten enpresek etxegabektuak berronartu beharko al dituzte, etenik gabeko ziklo batean?

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, ikastetxea hautatze aldera eta Tuteran Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako lerro bat ezartze aldera Hezkuntza Departamentuak daukan irizpideari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxea hautatze aldera eta Tuteran Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako lerro bat ezartze aldera Hezkuntza Departamentuak daukan irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, urriaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak zer irizpide dauka Tuteran ikastetxea hautatzeko eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako lerro bat ezartzeko?

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2014tik 2020ra bitarteko Programaren esparruan LEADER-toki garapeneko estrategia parte-hartzailea ezartzeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa.

UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2014tik 2020ra bitarteko Programaren esparruan LEADER-toki garapeneko estrategia parte-hartzailea ezartzeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Landa Garapenari buruzko Programa funtsezko tresna bat da erkidego honetan produkzio-eredu iraunkor bat, lurralde-orekakoa, bultzatzeko. Egungo programaren indarraldia (2014-2020) funtsezko aldi bati dagokio; izan ere, herri eta ibar asko daude egoera kritiko batean, desagertzeko zorian.

Egoera hau aldatzeko, garrantzitsua da gure ustez programa horretako 19. neurria; hau da, toki garapenari LEADER programaren bidez laguntzea xede duena, parte-hartzean oinarrituta.

Programa hori ezartzeko, funtsezkoa da toki-ekintzako taldeen zeregina, prozesu horien aitzindari direlako, berrikuntzaren eta dinamizazioaren arloko lurralde-erreferente diren aldetik.

Horregatik guztiagatik,

Zer neurri hartzen ari dira Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2014tik 2020ra bitarteko Programaren esparruan LEADER-toki garapen parte-hartzaileko estrategia ezartzeko? Horretarako zer lankidetzamota abiarazi da toki-ekintzako taldeekin?

Iruñean, 2016ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa berriz ere publikoa izateari dagokionez Nafarroako Gobernuak aurreikusitako egutegiari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa berriz ere publikoa izateari dagokionez Nafarroako Gobernuak aurreikusitako egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2016ko urriaren 5eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer egutegi darabil gogoan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa berriz ere publikoa izateari dagokionez?

Iruñean, 2016ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, NUP IDISNAn sartzeari eta Medikuntza Gradua ezartzeko aukerari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, NUP IDISNAn sartzeari eta Medikuntza Gradua ezartzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarreko Erregelamenduari jarraiki, ondoko gaur-

kotasun handiko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Atzo, urriak 2, NUPeko errektore Alfonso Carlosena jaunak Medikuntza Gradua ezartzeko aukerak eta zailtasunak aztertu zituen prentsa-elkarrizketa batean. Jakina denez, aspalditik mahai gainean dagoen afera da, jendarteko sektore anitzen eskaerari jarraiki. Akordio programatikoa ere jasotzen da.

Bestetik, urte eta erdi igaro da IDISNAk akreditazio eskaera egin zuenetik, eta bitarte honetan NUP institutuan sartzeko prozesua ez da burutu. Horren aurrean, honako galdera egin diogu Nafarroako Gobernuari:

Zer aurreikuspen dauka Nafar Gobernuak NUPen inguruan, alde batetik IDISNAn sartzeari eta, bestetik, bertan Medikuntza Gradua ezartzeko aukerari dagokionez?

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Tafalla aldean gertatutako baso-suteari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Tafalla aldean gertatutako baso-suteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ahoz erantzun diezaion:

Uda honetan Tafalla aldean gertatutako baso-sutea dela-eta ezagutu izan ditugun informazioak ikusita:

Oraindik ere uste al duzu gauzak ongi egin zirela eta egiten ari direla Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuan?

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Indiako sektore publikoko enpresen ordezkari batek Nafarroara egindako bisitaren balantzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Virginia Alemán Arrastio andreak aurkezturiko galdera, Indiako sektore publikoko enpresen ordezkari batek Nafarroara egindako bisitaren

balantzeari buruzkoa. Mozioa 2016ko irailaren 30eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako Jauregiko obrei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako Jauregiko obrei buruzkoa zen, eta

2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren

sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko neurriei buruzkoa zen, eta 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza